



Xabier Urdangarin alkatea eta Aintzane Barandiaran alkateordea.

SAGARDOETXEA

SAGARDOETXEA MUSEOAREN ETORKIZUNA ERABAKITZEN

GARA

Sagardoetxea museoaren inguruan Udalaren

proposamenari adostasuna edo



desadostasuna agertzeko aukera izango

dute Astigarragako herritarrek otsailaren 6an.

Astigarragako Sagardoetxea museoaren etorkizuna erabakitzeke herri galdeketa egingo da otsailaren 6an. «Ados al zaude Sagardoetxearen etorkizunerako proposamenarekin?» izango da Astigarragako bizilagunek erantzun beharko duten galdera. Sagardoaren museoak 15 urte egin dituen honetan, ekimenak aurrera eramateko eta sagarraren kulturaren inguruan

bildutako dokumentu eta pieza etnografikoak bildu eta herritarren eskura jartzeko «txiki» geratu dela iruditzen zitzaion Astigarragako Udaleko arduradunek. Horregatik, sei puntu biltzen dituen proposamena ondu du Udalak, eta horri baiezkhoa edo ezezkoa esateko aukera izango du Astigarragan erroldatutako 16 urtetik gorako herritar orok datorren otsailaren

6an, igandean. Besteak beste, Udalaren proiektu estrategikoak sagardogintzaren eta sagarraren kulturaren erdigunean jarriko du herri eta eskualde izaera eta proiektzioa gaintuz, bertako ekonomia, merkataritza eta turismoa sustatuko ditu eta egoitza berria Kontxa Etxeberria lorategiaren eta sagastiaren artean kokatuko da, hein handi batean, lurpean.



BIHAR. Lainotsu eta motel aterari eutsi ezinik. Goxotasunak ere ez du batera irabaziko ipar haizearen kulpaz. Kostaldean nabariturik da gehien kaskarkeria ipar haizearen jipoiarekin. Beraz, goizean izotzik ez, baina negu giroa mendi puntak



Hodeitsuago baina aterari eutsiz

GAUR. Joxe LANDA. Apur bat aldatuko da. Haizeak, ipar-mendebaldetik jarrita, laino multzoa ekarriko du zirimiria barreiatu nahian, baina pixka bat umeldu besterik ez du egingo, aterari eutsiz. Tenperaturak zertxobait irabaziko du; batez ere, goizekoak. Oskarbiaren eraginik gabe zerua eta eguratsa zikinago direla, dotoreziak apur bat galduko du, baina goxotasunak zertxobait irabazi.